

Betiko amai dadin eskatu dute

Azaroaren 25aren harira antolatutako ekimenetan parte hartu dute herritarrek; aSunak talde feministak deituta, manifestazioa egin dute / 4

TXINTXARRI

Lehengoratzzea eskatzeko, batuta

Onkologikoa Bizirik batzordeko kide diren Elena Ginea eta Sandra Barkaiztegirekin elkartu da TXINTXARRI aldizkaria / 6-7

Zabor bilketari dagokionez, amaitzearen legealdia "antzua" izango dela kritikatu du Eguzkik / 3

Aurtengo zenbait Azken Ostiraletan landutakoa fanzine batean jaso du Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak / 5

Euskaraldian parte hartzeko gutxieneko adinik ez, eta propioa egin dute Euskara Batzordeko kideek / 8-9

Denboraldiko helburu nagusia bidea egin bitartean ikastea da Eguzki Bodegas Ayesa taldearentzat / 10

Buruntzaldea IKtoko igerilariak marka pertsonal ugari ondu dituzte Neguko Ligako hirugarren saioan / 11

2 M 99€
erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua

www.multioplicas.com   



Mabel arropa denda atarian aurkeztu ditu Aterpea merkatarien elkarteak Gabonetako kanpainako bi egitasmoak. TXINTXARRI

Gabonetan ere kanpaina bikoitza, merkatariek

Etengabe saiatzen dira Aterpea elkarteko merkatariak lasarteoriatarak herriko komertzioetara erakartzen; horren adierazle dira martxan jartzen dituzten kanpainak. Bat amaitu eta bestea hasi; Gabonetakoekin hasiko dira orain

Txintxarri

Abenduan sartzearekin batera aurkeztu du Aterpea merkatarien elkarteak Eguberriko kanpaina, eta egitasmo horren barruan aurrera eramango dituen bi ekimenak ezagutarazi ditu. Alde batetik, Gabonetako produktuz osatutako otarren zozketak egingo dituzte. Kanpainarekin bat egin

duen establezimendu bakoitzak berea zozkatuko du bere bezeroen artean. Saria irabazi ahal izateko, hilaren 30era arte erosketak egiten dituzten erosleek papertxo bat bete beharko dute komertzioan bertan. Establezimendu bakoitzeko irabazlea egun horretan bertan iragarriko dutela jakinarazi dute antolatzaileek.

Bestalde, Eguberri garaia irabazteko, erakusleiho dotoreena aukeratzeko lehiaketa ere egingo dute, hilaren 12tik 18ra. Komertzianteen elkarteko ordezkariak zehaztu dute hemeretzi dendak parte hartuko dutela, eta bi sari egongo direla jokoan. Profesionala izango da horietako bat. Rural Kutzak babestuko du,

epaimahai batek deliberatuko du, eta Gabonetako mezu onena zein den baloratuko du. Epaimahaia nortzuk osatuko duten ere jakinarazi dute: Rural Kutzak, Amaia Gonzalez Caballero dantza akademiak, Biyak Bat zaharren egoitzak eta Ttakun Kultur Elkarteak. Bestalde, Aterpea saria egongo da. Herriarreen bozkek erabakiko dute horren irabazlea, eta erakusleiho ederrena zein den zehaztuko du.

Herriarrek bi modutan eman ahal izango dituzte bozkek: sare sozialen bidez, edo papertxoekin. Azken modu horretan egin nahi dutenek, etxeko postontzian jasoko duten eskuorriaren bidez egin beharko dute –hori bete, eta establezimendu parte hartzaile batera eraman beharko dute, bertan izango dituzten kutxatxoetan sartzeko–. Partaide guztien artean, 500 euroko saria zozkatuko dute; Aterpeko komertzioetan gastatzeko erosketa bonoak izango dira.

Etengabeko saiakera

Urte sasoi honetako kanpainak ditu eskuartean orain Aterpeak, baina horiekin batera, asteburu honetarako (hilaren 2 arratsaldetik, 4 goizera) VIII. Aterpea Pintxo Bideaz gozatzeria deitu ditu herriarrek. Lasarte taberna, Arkupe taberna, Araeta jatetxea, Buenetxea kafe taberna, Herriko Etxea jatetxea eta Alai taberna. Horiek izango dira aurtengo Aterpea Pintxo bidean parte hartuko duten establezimenduak. Prezioa 2,50 eurokoa izango da.

Aurreko aldietan bezala, guztiek pintxo hoberenaren saria

lehiatuko dute eta hori erabakitze dastatze saioa egin dute aurkezpenarekin batera. Jakinarazi dute honetan ere bi kategoria ezberdin egongo direla; sari profesionala eta herrikoia. Lehena Javi Mendo Lavie jatetxeko sukaldariaren esku egongo da aurtengo. Bigarrena, aldiz, herriko elkarte gastronomikoen eta herriarrek aukeratu dute. Dagoeneko Arrieskalleta, Lasartearra, Palomo Linares, Saustatxo eta Semblante Andaluz elkarteetako ordezkariak eman dute euren epaia. Eta ekintza gastronomikoa irauten duen asteburuan herriarrek ere euren bozkek emateko aukera izango dute. Tabernetan eskuorriak egongo dira horretarako. Bozka ematen duten guztien artean, 500 euroko saria zozkatuko dute; Aterpeko komertzioetan gastatzeko erosketa bonoak izango dira.

Maite Toquerorentzat, 1.000 euro

Astearte arratsaldean (azaroak 29) gastatu zituen Maite Toquero herriarrek, Eskuratu 1.000 euro kanpainako irabazleak erosketa bonuak. Zer eta non erosi erabakita igo zen merkatarien elkarteak jarritako furgoneta beltz dotorerara, hiru ordu besterik ez baitzituen sosak xahutzeko. 20:00ak bitarte ibili zen komertzioz komertzio.

"Pozik eta urduri" agertu zen protagonista hitzordura, eta aldi berean, merkatariekin eskertuta. Nabarmendu zuen "gertutik" bizi duela herriko merkataritza, sektore horretan lanean aritu direnen senide delako.

Jaiotzen lehiaketa berreskuratu du Danok Kide elkarteak

Lau kategoriatan parte har dezakete herriarrek, adinaren arabera. Sarituak Muebles Azpeitian jarriko dituzte ikusgai

Txintxarri

Danok Kide Elkarteak jarduera tradizional bat berreskuratu du aurtengo: Eguberriko jaiotzen lehiaketa. Oinarrien berri eman du: 6 urte edo gehiago dituzten herriarrek parte har dezakete, hilaren 16 eta 17ra arte. Sariak 30ean banatuko dituzte, 12:00etan, eragile horrek Blas de Lezo kalean duen egoitzan.

Deialdian parte hartzeko zenbait oinarri zehaztu dituzte

antolatzaileek. Jaiotzek 80x60 zentimetrokoak izan behar dute asko jota. Hondo sendoa duen egiturarik ez dute onartuko, eta noizbait beste lehiaketaren batera aurkeztutako lanik ere ez. Banaka nahiz taldeka parte har dezakete herriarrek. Norbanako edo partaide multzo bakoitzak jaiotza bakar bat aurkeztu ahal du. Horrez gain, Gutunazal itxi bat entregatu beharko dute jaiotzarekin batera. Kanpoko aldean adina

idatzi behar du partaideak, eta barrukoan, izen-abizenak, telefono zenbakia eta helbidea eta jakinarazi dute, aurkeztutako lanek kalitate nahikoa ez dutela ondorioztatuz gero, epaimahaiak saririk gabe utz ditzake kategoriak.

Sariak, ohi bezala, mailako banatu dituzte. Partaideak lau multzotan banatuko dituzte: 6 eta 9 urte artekoak (A kategoria), 10 eta 13 urte artekoak (B), 14 eta 17 urte artekoak (C) eta 18 urtetik gorakoak (D). Danok Kideko lagunek zehaztu dutenez, aurkeztu ostean onartua izan den jaiotza bakoitzaren egileak 15 euro jasoko ditu. Talde bakoitzeko garaileak sari hauek jasoko dituzte. A kategorian, garaileak 70 euro eta garaikurra, eta bigarrenak, 50



Pasa den edizio bateko garaileen lanak, Muebles Azpeitian ikusgai. TXINTXARRI

euro eta trofeoa. B kategorian, irabazleak 80 euro eta garaikurra, eta bigarrenak 60 euro eta trofeoa. C kategorian, berriz, garailearentzat 100 euro eta garaikurra eta bigarrenarentzat 70 euro eta trofeoa, eta, azkenik,

D kategorian, irabazlearentzat 130 euro eta garaikurra, eta bigarrenarentzat 100 euro eta trofeoa. Saritutako jaiotzak Muebles Azpeitia dendan jarriko dituzte, eta gainerakoak, San Pedro parrokian.

Eguzki: "Birziklatzaileak zigortuko ditu udalak"

Zabor bilketari dagokionez, amaitzearen legealdia "antzua" izango dela uste du Eguzki Talde Ekologistak. Bestalde, Lasarte-Orian Aire Garbia plataformaren deia erantzunda, dozenaka herritar Donostian izan dira, GuraSOSek antolatutako manifestazioan

Txintxarri

"Lasai asko esan dezakegu udalak zigortu egingo dituela birziklatzen duten lasarteoriatarrek, zabor tasa finkoaren bidez; horrela bukatuko du legeintzaldia", deitoratu du Eguzki, ohar bidez. "Birziklatzen dutenek eta hori egiten ez dutenek berdin-berdin ordaintzea" da tasa finkoa: "Antiekologikoa ez ezik, sozialki injustua ere bada, arduraz jokatzeko dutenak zigortu eta axolagabeak saritzen dituelako". Horren ardura PSE-EEk gehiengoa duen udalari egotzi dio talde ekologistak, eta erabiltzen dituen argudioak kritikatu ditu, "umekiaren eta zinismoaren arteko nahasketa baten ondorio" diruditenak.

Batetik, azaldu dute udalak dioela "aurreikusita" dagoela birziklatzaileentzako deskontu bat, baldin eta herriak, oro har, gaikako hondakin bilketan "portzentaje jakin bat" lortzen badu. "Alabaina, eta hori ere aitortzen dute, ez dago ehuneko hori lortzerik udalak berak ezarri duen sistemarekin, hau da, Lasarte-Oria Gipuzkoan azken putz izatera kondenatu duen horrekin". Bestetik, zehaztu dute udalaren iritziz "arriskutsua" izan daitekeela bosgarren edukiontzia erabiltzaile txartela izateagatik deskontu eskubidea



Milaka pertsona manifestatu ziren Donostian, azaroaren 27an. GURASOS

izatea. "Hori, beharbada, oso arrazoizkoa izan zitekeen, baldin eta udalak berariaz erabaki izan ez balu txartel horiek edukiontzia ireki ez beste ezertarako balio izatea. Hau da, udalak berak erabaki zuen txartela ez lotzea erabileraren jarraipena egitea ahalbidetu zezakeen software sistemarekin". Herritarrak konzientziatzeko udalak antolatzen dituen kanpainak "propaganda hutsa" dira, Eguzkiren ustez. "Egingo balu bezala egiteko, baina benetan aurrera eraman gabe".

Azaldutako guztiagatik, Eguzki "meritu handia" dutela aitortu die herritarrei: "Lasarte-Orian gutxi birziklatzen da, egia da,

baina lasarteoriatarrek udala ia-ia kontra dutela birziklatzen dute, gutxi edo asko izan".

Erraustegia gelditzeko eskaera

Bestalde, Lasarte-Orian Aire Garbia plataformaren deia erantzunez, dozenaka herritar Donostiara joan ziren azaroaren 27an, GuraSOS eragileak antolatutako manifestazioan parte hartuz. Bulebarretik hasi eta Zurriolako hondartzaraino, Zubietako erraustegia prebentiboki gelditzea eta Gipuzkoako Ahaldu Nagusiarekin biltzea eskatu zuten, "etorkizuna elkarrekin adosteko" helburuarekin.

Santa Zezilia eguna gogotik ospatu du Alboka Abesbatzak

Erriberri Hiriko III. Abesbatzen Topaketan ere parte hartu du berriki; "harrera ederra" jaso dutela azpimarratu dute kideek

Txintxarri

Azaroaren 22a izan zen Santa Zezilia eguna, eta hori ospatze aldera, bost egun geroago San Pedro parrokiako meza girotu zuen Alboka Abesbatzak. Lau doinu eskaini zizkien elizan zeuden sinestunei, korutik: Claude Goudimel eta Joanes Haranbururen *Salmoa*, *Hanaq pachap kusikuynin* 1631 urteko abesti perutarra, Ola Gjeilo-ren *Ecce Novum* eta Felipe Gorritiren *Agur Jesusen Ama*. Bukatzean, bazkaria egin zuten partaideek, bazkide eta lagunekin.

Erriberri, "harrera ederra"

Egun batzuk lehenago, azaroaren 19an, Erriberri izan ziren Albokako kideak. Abesbatzen topaketaren hirugarren aldia parte hartu zuten, Coral Olitense eta Iruñeko Ganbera taldeekin batera. "Harrera ederra" jaso



Erriberriko topaketaren amaiera. ALBOKA

zutela nabarmendu dute. Abesti sakroak eta gaur egungo melodiak uztartzen dituen egitaraua eraman zuten taula gainera.

Emanaldia bukatu eta gero, beste bi taldeekin batera David Azurzaren *Dantzantik* lana estreinatzeko oholtzaratu zuten, Erriberriko abesbatzako Javier Echarrik zuzenduta. Azurza bertan zegoela baliatuta, berak konposatutako *Birjina maite* obra zuzentzeko eskatu zioten parte hartzaileek.

Plaza hartu dute muxikoek

Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkarteak lankidetzan aurrera daramaten Plaza Dantza egitasmoko partaideek saioa egin zuten Okendo plazan, azaroaren 27an. Berrogei bat lagun elkartu ziren dantzan aritzeko, jonearen arabera kopurua aldatzen joan bazen ere. Gogoz mugitu zituzten oinak eta gorputza, banaka edo taldean, bi orduz. Begira zeuden gazteak batzuk ere animatu ziren pausoak ikasten ahalegintzera.



TXINTXARRI

GABONETAKO zenbaki BEREZIAK ABENDUAREN 23AN ETA 30EAN

Zure iragarkia jarri nahi duzu? Jar zaitez gurekin harremanetan!

Deskontu bereziak herrikoentzat!

eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus

943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

txintxarri

Aldarri egiteko bildu dira

Azaroaren 25eko jardueretan parte hartu dute herritarrek

Aurten ere agertu dira lasarteoriarrak emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Azaroaren 25aren harira, askotariko ekimenetan parte hartu dute, beste behin, indarkeria matxistak gaitzetsi eta horiekin amaitu behar dela eskatzeko. Aipatu egun horretan bertan, udalak deitutako elkarretaratzean batu ziren herritarrek. Dozenaka lasarteoriatar elkartu ziren Okendo plazan, 12:00etan, eta zenbait minutuko isilunea eta gero adierazpen bat irakurri zuten. Egun berean, baina iluntzean aSUnak talde feministaren eskutik, manifestazioa egin zuten. Okendotik abiatuta, Kale Nagusia eta erdiguneko beste kale batzuk zeharkatu zituen mobilizazioak. *Sistema honetan elkar zaintzea erradikala delako, Lasarte-Orian autodefentsa feminista* lelopean 180 bat herritar batu ziren. Horrekin batera, udalak egun seinalatu horren harira antolatutako jarduera zerrendaren barruan, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umoregileek *Luze edo motz* ikuskizunaren emanaldia egin zuten arratsaldean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Sei bakarriketaz osatutako emankizunarekin barre eta gogoeta egiteko aukera eskaini zieten ikus-entzuleei. Virginia Imaz artistak, berriz, *Pronoia* antzezlanaren oholzaratu zuen azaroaren 26an. Eta etxeko txikienek ere izan dute gaia lantzeko hitzordurik. Berdintasuna lantzen duten liburuak irakurri zizkien Maria Garcia Loredok ipuin kontalariak astearte arratsaldean, azaroak 29.



Azaroaren 25 eguerdian elkarretaratzea deitu zuen Lasarte-Oriako Udalak. TXINTXARRI



Herritarrek aSUnak talde feministaren manifestazioan parte hartu zuten. TXINTXARRI



Adi entzun zituzten haurrek Mari Garcia Loredok ipuin kontalariaren kontakizunak. TXINTXARRI



Virginia Imazek 'Pronoia' antzezlanaren oholzaratu zuen. TXINTXARRI



Mirari Martiarena, urdinez eta Idoia Torregarai, gorritz, oholztan. TXINTXARRI



NEURE KABUZ

LIERNI REKONDO

Ez naiz uste duzuen hori

Ordenagailu aurrean jarri naiz artikulua idatzi asmotan eta betiko esaldia etorri zait burura: nor naiz ni gai baten inguruan bueltaka darabilkidan hori publikatzeko? Egunen batean ohartuko dira ez dudala iritzi kritikorik. Hala gertatu zitzaidan aurrekoan ere, podcast batean parte hartzera gonbidatu nindutenean bertsolaritzaren inguruan hitz egiteko.

Bertsolaritzako irakasle gisa lan egiten dut, bizi erdia baina gehiago daramat bertso eskolan, eta, askotan ez bada ere, plazan aritzen naiz kantuan. Prestakuntza

eta esperientzia jakin bat daukat gai honen inguruan, baina, hala ere, iruzur hutsa naizela sentitzen dut, eta benetan ikusiko balute zer dakidan, zer pentsatzen edo sentitzen dudana, sorpresa hartuko luketela.

Hala gertatzen zait lan esparruan eta baita sorkuntza arloan ere, eta dagoeneko zalantzan jartzen hasia naiz ez ote naizen nire buruarekiko dudana autoirudia distorsionatzen ari.

Aurrekoan lagun batzuekin (denak emakumeak) aritu nintzen gai honetaz hizketan, eta gehienak identifikatuta sentitu ginen sentipen honekin. Gure gaitasunei eta potentzialari buruz zalantzan egotea erabat etsigarria zela ondorioztatu genuen, deskubrituak izateko eta iruzur bat garela konturatzeke etengabeko beldurra sentitzen genuela.

Honi Inpostorearen Sindromea deritzo eta Pauline Clance doktoreak izendatu zuen 1978 urtean. Clancek, norberaren potentziala etengabe zalantzan jartzera eramaten duen autoestimu falta gisa definitzen du. Ez dut uste kasualitatea denik sindrome hau pairatzen duen gehiengo emakumea izatea.

Esango nuke gure ingurura begiratuko bagenu, gizartearen egitura historikoak, hots, Patriarkatuak nahiko garbi azaltzen duela zergatik pairatzen ditugun gehiago emakumeok horrelako gaitzak. Espazio publikoetan presentziarik ez izateak, erabakiak hartzeko postuetan emakumezko erreferenterik ez egoteak eta tradizioz feminitateari lotutako zenbait ezaugarri eragina dute gure autoestimua eraikitzeke moduan eta gerora munduari aurre egiteke moduan. Duela hamarkada gutxira arte,

esparru publikoan ez da gure presentziarik ageri izan, eta, are gehiago, gaur egun hartu dugun leku hori mugatua da eta arautua dago oraindik ere; izan ere, plazara atera garen arren, ez gara gizonezkoen pareko gisa irakurriak, ez ditugu pribilegio berberak. Horregatik, gero eta ohikoagoa da beren burua iruzurgiletzat hartzen duten emakumeak aurkitzea.

Saia gaitzen sistemak barneratuarazi dizkigun gure sinesmenak irauli eta norbere burua zaintzen, autoexijentzia baretu eta autozaintza lehenesten, norberaren buruari eta lorpenei balioa ematen.

Hau da nire ahotsa, emakume, gazte eta sortzaile gisa eskaini diezazuekidan iritzi xumea. Ez dut espero zuei iruzur egiterik, neuretik aritu, eta ahal bada zuen hausnarketei atea zabaltzea baizik.



Ezker-eskuin: Ioritz Iparragirre, Idoia Telleria, Isa Fernandez de Agirre eta Ander Casado. LASARTE-ORIAKO PRESOEN ALDEKO BATZORDEA

Fanzine batean bildu dituzte Azken Ostiralak

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak egitasmo pare bat iragarri ditu urteko azken hilabeterako: aurtengo Azken Ostiraletako lanketekin egindako fanzinea aurkeztuko du hilaren 7an, eta egun batzuk geroago, 16an, enkante kolektibo bat aurrera eramango

Iñigo Gonzalez Sarobe
"Urteak dira Azken Ostirala egiten dugula herrian, eta gaur egun Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordean gabiltzan herritarrok dinamika horri buelta bat ematea erabaki genuen urte hasieran, erakusteko presoek gaiak zerikusia duela beste borroka eta ertz batzuekin". Ander Casado lasarteoriatarren hitzak dira,

aipatu batzorde horretako kideetako batenak. TXINTXARRI-rekin elkartu, eta urteko azken hilabeterako prestatutako egitasmoen berri eman du. Aurrenekoa hilaren 7an egingo dute, asteazkenez, Agora tabernan, 19:00etan. Fanzine bat aurkeztuko dute, *Azkenak!* izenekoa. Irakurleek zer topatuko dute aldizkaritxo horren orrietan?

Esate baterako, presoek aldeko batzordeak herriko beste norbanako eta elkarte batzuekin egindako lanketetako testuak. "Urtarrilean tortura jorratu genuen; otsailean, dispertsioa; martxoan, feminismoa; apirilean, nazioarteko gatazketako presoek egoera; ekainean, sexu askapena; eta irailean, memoria". Casadok azaldu duenez, lanketa horietako

bakoitzerako sortutako testuak "txukunak" zirela ikusi zuten, eta orduan bururatu zitzaizkien horiek paperera eramateko ideia. Idatziez gain, fanzinearen ale bat eskuratzen dutenek ilustrazio eta argazkiak ere ikusiko dituzte, lanketa bakoitzeko bana. Herriko bost sortzailek parte hartu dute, Casadok jakinarazi duenez: Ione Zabala, Sara Etxeberría, Isa Fernandez de Agirre, Idoia Telleria eta Aitzol Iriondo. Maketazio lanak, berriz, Uxune Iparragirrek egin ditu. "Hasieratik izan dugu argi elkarlanean ariko ginela", adierazi du Casadok. Testu eta irudiez gain, hitzaurretxo bat izango du. Aurkezpena joaten diren herritarrek aukera izango dute *Azkenak!* erosteko. Horrez gain, fanzinerako sortutako elementu grafikoekin erakusketa jarriko dute taberna horretan bertan, 16ra arte.

Enkante "kolektiboa"
Bigarren jardueran egun batzuk geroago egingo dute, hilaren 16an, ostiralarekin, Tiburtzio Artizar tabernan, 18:30ean. Enkante "kolektibo" bat antolatu dute. "Ez genion zentzurik ikusten baliabide gehiago dituzten norbanakoei eskaintza altuagoak egiteari, eta horregatik, erabaki dugu taldean egingo dugula: kuadrillan, familian... parte hartu ahalko dute herritarrek, denek artean botea jarrita", azaldu du Casadok. "Fanzinea osatzen duten sei laminez gain, zenbait pertsonak eskuzabalki eman dizkiguten produktu ugari subastatuko ditugu". Ekimen horren aurkezleak Bea Egizabal eta Intza Alkain izango dira, enkantea "ahalik eta dinamikoena" izatea baita antolatzaileen helburua. Salerosketak bukatu eta gero, Casadok iragarri du kontzertu

bat emango duela Eñaut Zubizarreta *Trigger* musikariak, 21:00etatik aurrera. Bi horiek izango dira bi jardueran nagusiak, baina ez bakarrik, izan ere, urtero legez, hilaren 31n mobilizazio bat egingo dute herrian barrena. 2023 hasierarako, berriz, Sare Herriarrak antolatutako manifestazio nazionala eta Harresi Guztien Gaietik taldearen XII. Errezitaldia dituzte agendan apuntatuta.

Lanketekin, "pozik"
Presoen aldeko batzordeko kideak "pozik" daude Azken Ostiralei eman dieten bueltarekin. "Ikusten genuen jende bera elkartzen ginela hilabetero, eta zabaldu egin nahi genuen presoek gaia, bistarazi lotuta dagoela beste aldarrikapen eta ertz batzuekin". Casadok aurreratu du datorren urtean jarraitzeko asmoa dutela. "Proba egin dugu aurtengo, eta funtzionatu duela ikusi dugunez, gogotsu gaude dinamikarekin jarraitzeko".

Bi jarduerak, bi hitzordu

- Hilak 7, asteazkena:** *Azkenak!* fanzinearen aurkezpena, Agora tabernan, 19:00etan.
- Hilak 16, ostirala:** Enkante kolektiboa, Tiburtzio Artizar tabernan, 18:30ean. Ondoren, *Trigger* musikariak kontzertu bat emango du, 21:00etan.

Egitasmoei buruzko informazio gehiago, [@PBlasarteoria](#) Twitter kontuan eta Telegram kanal honetan: [t.me/LasarteOriakoPB](#).

Preso dauden emakumeen egoera hizpide

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna izanik, preso dauden emakumeen egoera izan zuten hizpide Azken Ostiralean, azaroaren 25ean. Aurrez egindako manifestazioan parte hartu zuten, ez zuten mobilizaziorik egin, Elizatze plazan elkarretaratzea baizik. Sarek eta Etxeratek kontuan hartu zuten data beren irakurketa bateratuan. Espetxearen eta espetxe sistemaren izaera patriarkalak "zigor bikoitza" ezartzen die emakume presoek, emakume izateagatik

eta preso egoteagatik. Euskal Herrikan kanpoko espetxeetan preso daudenak, erbesteratuak eta deportatuak etxeratzeko oraindik ere lanean jarraitu behar dutela gogoratu zuten. Horretarako, "konpromisoa, mobilizazioa kalean eta lana" beharrezkoak dira. Helburua salbuespenarekin behin betiko amaitzea, gradu aurrerapenak eta baimenak desblokeatzetik hasita, Espainiako Auzitegi Nazionalak geldiarazteko ahalegina deuseztatu arte.



Datozen astei begira, hilaren 10ean Etxerate presoek giza eskubideak aldarrikatuko dituzte Gasteizen, eta egun berean, Durangon, manifestazioa egingo dute gradu erregresioen kontra.

Eguberrietan ere mobilizazioekin jarraituko dute eta urtarrilaren 7an *#etxerabideagertu* lelopean manifestazioa egingo dute Bilbon, bi urteko hutsunearen ondoren.

"Zerbaitek funtzionatzen badu, zertarako aldatu?"

ELENA GINEA ETA SANDRA BARKAIZTEGI ONKOLOGIKOA BIZIRIK BATZORDEKO KIDEAK
Osakidetzaiko parte bilakatzeko bidean, Onkologikoaren zerbitzuak okerrera egin duela salatu eta lehengoratzeko eskatzeko batu dira zenbait paziente eta erabiltzaile

Maitane Aldanondo

Osakidetza eta Kutxa Fundazioak lotura akordioa sinatu zuten 2018an, ordura arte minbizia artatzen erreferentziazko zentroa zena alor publikoan barnertzeko. Ia lau urte pasatu badira ere, integrazioa ez da burutu, eta bidean izaera monografikoaz gain, eraginkortasunari lotutako beste onura batzuk galdu ditu Onkologikoak. Horren guztiaren eragina zuzenean bizi dute pazienteek eta erabiltzaileek.

Horregatik, Onkologikoa Bizirik batzordea osatu zuen apirilean bertako paziente-direnak edo izandakoak-, senide eta laguntzaile talde batek. Kideetako bi dira Sara Barkaiztegi (Lasarte-Oria, 1972) eta Elena Ginea (Lasarte-Oria, 1967) herrikideak. Urtebeteko aldearekin pairatu zuten bularreko minbizia, 2020an eta 2021ean, hurrenez hurren; baina artatzeari dagokionean, bien bizipena ez zen bera izan. Egoerak okerrera egiten jarraitzen duela ikusteak, gainera, haserretu egiten ditu.

Zergatik erabaki zenuten antolatu eta batzorde hori osatzea?

Sandra Barkaiztegi: Paziente garen heinean, Onkologikoan artatuak izan garen joan-etorri horietan, ikusi genuen bazirela kartel batzuk esaten zutenak bazegoela eratua pazienteen batzorde bat edo pazienteentzako gune bat. Nik bezala beste askok horra

idatzi genuen eta erantzunik ez dugu jaso. Hor eskaintzen ziguten babes bat, Onkologikoaren erabilpenaren inguruan hitz egiteko.

Elena Ginea: Batzorde hori desegina omen zegoen. Orduan, batzuk biltzen hasi ginen, Izan Inurri genbiltzan batzuek elkar ezagutzen genuen eta langileekin hitz egin genuen. Onkologikoa pikutara joaten ari dela ikusten genuen, lehenago zena, historikoki izan dena eta orain ikusten duguna... Antolatzea erabaki genuen.

S.B.: Behar hori zegoen eta batzea erabaki genuen, paziente eta erabiltzaile gisa sentitzen ditugun behar horiek guztiak komunean jartzeko. Gainera, hor sartzen da langileen egoera, beste gauza guztiak bezain garrantzitsua dena. Elkarlanean hasi ginen, baina bi batzorde gara.

E.G.: Alde batetik, langileen batzordea dago eta bestetik, pazienteena. Mobilizatzeo eratu genuen Onkologikoa Bizirik. Gure leloa da *Onkologikoa bizirik, guk bizirik irauteko*.

Zeintzuk dira behar horiek?

S.B.: Gure artean hitz egiten ikusi genuen badiela, Elena bezala, lehen unetik Onkologikoan artatuak izan direnak. Hasieratik bukaerara, diagnosia, proba guztiak eta tratamendua; dena Onkologikoan bertan, eraikin berean, egin dutenak.

E.G.: Analisiak izan ezik, gainerakoa, bai. Lehen bertan egiten zituzten azterketa horiek ere. Egun berean bizpahiru proba zenituen. Gu Lasarte-Oriatik goaz, baina badago jendea Legorretatik, Azpeititik... Horientzat etorri, bi ordu itxaron, lau egunetara beste proba bat egitera bueltatu... Ez da lehenago zena.

S.B.: Nik, adibidez, kimioa bakarrik hartzen nuen hor. Horretarako, aste berean egokitzen zitzaizkidan probak egin behar nituen eraikin batean, odola atera anbulatorioan aurreko egunean... Olatz gure kideak esaten duen bezala, ginkana batean sartuta pasatzen genituen bi egun, lehen, egun edo goiz berean egiten zen hori guztia egiteko.

E.G.: Eta itxaron behar duzu kontsultetan artatua izateko, telefono deiak diagnostikoa jasotzeko... Ziurgabetasunean bizi gara. Paziente onkologikoak horrela egotea, jakinda lehen nola zegoen Onkologikoa... **Horrela ibili behar izatea gaixoentzat karga gehigarria izateaz gain, bestelako ondorio batzuk ere badituela salatu duzue.**

E.G.: Desegite horretan, hiltzen utzi nahi dute. Erabilera oso txikia da, adibidez, ez dute ebakuntzarik egiten, bi oheko 50 gela daude eta 7-10 besterik ez dituzte erabiltzen. Anestesistak joan egin dira, bakarra gelditzen

da; ginekologoak eta zirujauak, berdin. Duela gutxi esan zidan nire ginekologoak murriztu egin dizkietela kontsulta orduak. Lehen, egunero bazuten, orain, astean bitan daukate.

S.B.: Itxaron zerrendak gero eta luzeagoak dira eta langileei lan karga kentzen diete. Nola liteke? Ez du zentzurik. Otsailean-edo atera zen itxaron zerrendak %40 inguru luzatu direla. Nola liteke jende bat hor badago prest?

E.G.: Eta tresneria nola dute? Utzita dute, zaharkitzen, ez dutelako erabiltzen.

S.B.: Xehe esanda, kimioa nahasteko makina oso berri bat omen daukate, oso aproposa, kristorena omen da. Baina Osakidetzaatik datorren tratamendua ondoko eraikinean, Donostia Ospitalean, egiten dute eta gero hara eraman. Ez da ez dagoenik, baizik eta ez dela erabiltzen dagoena. Kezka handiena hori da, nola liteke dagoena ez erabiltzea, eta ondorioz, minbizia tasa altuagoak izatea eta ondorioak areagotzea txarrerara. Sendatze portzentajeak txikitu egin dira eta beste ondorio kaltegarriak, handitu.

E.G.: Kudeatzeko era ere. Integrazioa hala-nola egiten ari dira, kontuan hartu gabe pazienteak eta ingurukoak.

Hitzarmena sinatu aurreko funtzionamendua berreskuratzea da nahi duzuen, ezta?

S.B.: Guk ez dugu ezer berria nahi, ezagutzen genuen hori, baizik. Olatzek kontatzen du bere ama duela 8-10 urte izan zenean, bertan egiten zuela dena. Berak lehen pertsona hitz egiten du. Minbizia Osakidetza sartu dute eta beste gaixotasunen pareko artatzen da, baina lehen bere bidea zuen. Azkartasuna irabazten zen...

"NIK TRATAMENDU ERA BAT EDUKI NUEN, SANDRAK, BESTE BAT; ETA HORREN ZERGATIA EZ DAKIGU"

"ITXARON ZERRENDAK GERO ETA LUZEAGOAK DIRA ETA LANGILEEI LAN KARGA KENTZEN DIETE. NOLA LITEKE?"

E.G.: Eta tratu familiarra; familia handi bat zen. Orain Osakidetza integratzen ari dira, baina era kaotiko batean, gure ustez. Dena kaosa da, kontrolik gabea. Nik tratamendu era bat eduki nuen, Sandrak, beste bat; eta horren zergatia ez dakigu.

S.B.: Elenak, gainera, bizi izan ditu bi egoera desberdin minbiziaren aurrean, bikotearena eta berea, izugarri bestelakoak. Odola ateratzea izan ezik, Elenari dena bertan egin zioten; Patxiri... **E.G.:** Patxi Osakidetza itxaron zerrendan zegoen, eta orain, berdin dago Onkologikoan.

Aldea baliabide eta kudeaketara mugatzen da, ezta? Alegia, langileen jarraera betikoa da.

S.B.: Harreman pertsonala ez da aldatu, uste dugu zoragarria dela. Gu osatu baldin bagara, argi daukagu jaso dugun tratu gizatiarragatik dela. Baina, hain justu, sendatu gaituzten baliabide horiek, pertsonak gehi azkartasuna, gehi dagoen tresneria erabiltzea, gehi onkologiara bideratutako eraikina, gehi tratamendu guztia bertan egitea. Azkenean hori da asko osatu gaituena.

Gizatasunak berdina izaten jarraitzen du, ez daukagu dudarik. Eta ez da Onkologikoko sendagileak erabatekoak direla eta Osakidetza edo ospitalean lan egiten dutenak bestelakoak. Tarteko dauden baliabide horiek baizik. Erabaki horiek non, noiz eta nork hartzen dituen.

Nork erabakitzen du? Zein da egoera honen arduraduna?

S.B.: Bi alde ikusten ditugu: batetik, Osakidetza eta Osakidetza daramatenen erabakiak politikoak, eta bestetik, Kutxa Fundazioa. Oraingoan, Onkologikoa Kutxa Fundazioarena da. Sagardui andereari esaten diogu, une honetan bera delako burua, eta Onkologikoko Patronatuari beraiek orain dela lau urte egin zutela hitzarmena Onkologikoa Osakidetza sartzeko. Uste dugu hori dela bidea, publikoa izatea, baina sartze horretan galera egotea ez dugu ulertzen.

E.G.: Ospitalera sartzen zaren momentutik zenbaki bat zara; Onkologikoan harremana gertukoagoa da, denok elkar ezagutzen dugu. Artatzen zaituzten onkologoa, ginekologoa eta psikologoa elkarren artean koordinatzen dira, dena kate bat da, eta zu pertsona bat zara.



Elena Ginea eta Sandra Barkaiztegi lasarteoriatarrek paziente ohi eta egungo erabiltzaile gisa erabaki zuten Onkologikoa Bizirik batzordea sustatzea eta bertako parte izatea. TXINTXARRI

"Kaixo, Elena" esaten didate. Txikiagoa delako, familiarragoa, baina hori ahultzen ari da.

Publikatzeak zerbitzuaren okertzean eragin duela salatzen duzue, beraz.

E.G.: Gaizki egiten ari direlako, edozein modutan. Gure ustez horrek huts egiten du. Eta pena da, erraza dutelako. Lehen ondo zegoena zergatik aldatu?

S.B.: Hori da ulertzen ez duguna. Zerbaitek funtzionatzen badu, zertarako aldatu?

Horren atzean interesik izan daitekeela uste al duzue?

E.G.: Aseguru pribatuen aldeko iragarki asko dago, eta Osakidetza ildo horretatik doa, argi eta garbi. Beste bultxo bat agertu eta itxaron behar badut, badaezpada pribatura noa mamografia egitera. Jendea hori egiten ari da behartuta. Denontzako osasun sistema izan beharko luke, doakoa; baina ez dute hori bultzatzen.

S.B.: Gu osasun publikoak mantentzen gaitu bizirik. Hori oso garbi daukagu. Paziente izan garenean, paziente aktibo izan gara, eta orain, erabiltzaile aktibo gara. Gure kezka da:

nahita luzatzen dira itxaron zerrendak?

E.G.: Lehen, Onkologikoan artatzen zituzten prostatako minbizia eta kolonekoa ere. Kristoren itxaron zerrendak omen daude. Hor dago nire bikotekidea. Paziente Arretara joan behar izan genuen kexatzera, gainezka zeuden, eta handik bi egunera deitu zioten. Ez bazara kexatzen, dei baten zain zaude. Gauza larriak dira.

Egoera honetan zeintzuk dira zuen batzordearen aldarrikapenak?

S.B.: Batetik, Kutxa Fundazioari eskatzen diogu pazienteen batzordea komisario izatea, estatutuetan hala jarrita dagoelako; eta langileek ere komisario izatea eskatzen dute. **E.G.:** Hau da, guk aktiboki parte hartzea horretan, Onkologikoa nola izango litzatekeen erabakitzean.

S.B.: Eta Osakidetza eskatzen dioguna berdina da, parte aktibo izatea. Nola? Entzunez eta edozein aldaketetan kontutan hartuz guk bizi izandakoa. Hortik emango dizkiegun ideiak eta beharrak benetakoak dira.

E.G.: Tontakeria badirudi ere, aipatzea garrantzitsua da, inpaktua daukalako, gehienok pasa beharko dugula Onkologikotik. Gu ez bagara, senideren batek edo inguruko norbaitek izango du minbizia. Orduan, zain dezagun. Eguneroko zerbait da, denok pasa beharko dugu hortik, ahal den kalitate hoberena izan dezala.

S.B.: Pazientea da benetan gaixotasuna momentuan pasatzen ari dena, baina haren inguru guztia da erabiltzailea. Minbizia, gainera, ez da pertsona bakarrik gelditzen, baizik eta inguru osoa hartzen du.

Mobilizazioak egin dituzue, erakundeekin bildu zarete ere. Nola ari zarete zuen salaketa zabaltzen?

S.B.: Gu ate-joka gabilta eta joango gara nahi dugunari erantzuten dion edonorengana edo edonora.

E.G.: Hilabeteak dira Legebiltzarrean agerraldia eskatuta dugula gure kezkak eta aldarrikapenak azaltzeko. Oraindik ez digute kasurik egin. Batzar Nagusietara ordezkartza bat joan zen eta adierazi zituzten ditugun

beharrak. Horrez gain, harremana dugu minbiziaren aurkako beste taldeekin edo osasungintza publiko egokiaren alde Donostian badagoen beste plataforma batekin.

S.B.: Gainera, herri guztietan mozioak sartzen ari gara.

Babesik izan al duzue?

E.G.: Batez ere, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk bat egin dute gure aldarrikapenekin, eta lan instituzionala egiten laguntzen ari dira. Sindikatuen babesa ere badugu, baita elkarte batzuen ere.

"ONKOLOGIKOAN HARREMANA GERTUKOAGOA DA, DENOK ELKAR EZAGUTZEN DUGU"

"GU OSASUN PUBLIKOAK MANTENTZEN GAITU BIZIRIK. HORI OSO GARBI DAUKAGU"

S.B.: Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk langileen eta erabiltzaileen batzordeak egindako mozio bat sartu zuten udalean. Jasotako erantzuna EAJk eta PSE-EEk elkarrekin jarritako kontramozio bat izan zen, gauzak ondo egitea eskatzen dutela esanez. Eta guk dioguna da eskatzen duten hori 2018an egindako hitzarmena dela.

E.G.: Gainera, gauzak ondo egitea diote... Baina lau urte pasatu dira! Zertan ari dira? Haiek dira lana egin behar dutenak. Zer kontramozio...

S.B.: Beste gauza batzuen artean eskatzen duguna pazienteek esateko dutena entzutea da. Entzutea, eta kasu egitea.

E.G.: Uste dut beraiek ondo gelditzeko diotela: "Pazienteen ahotsa entzun nahi dugu". Bada, hori da; pazienteok prestatu dugu. Beraiek ez gaituzte entzun, eta beste alderdi batzuek, bai. Uste dut beraien burua zuritzeko diotela. Pandemia aurretik jada bazegoen korapiloa estutu egin da eta egoerak okerrera egin du pandemiarekin.

S.B.: Gipuzkoako Batzar Nagusietako politikari guztiak gonbidatu ditugu Onkologikora joan, eta bertatik bertara ikustera gutxiegi erabilia dagoela. Elkarrekin Podemos eta EH Bildu joan ziren, baina ez dute uste gainerakoak joan direnik. Gauzak *in situ* ikustearena garrantzitsua da. Sartzen ditugun mozioak kasu honetan pazienteek idatzitakoak dira.

Eta Onkologikoaren eta Kutxa Fundazioaren aldetik, zer erantzun jaso duzue?

S.B.: Gure ate-joka ibiltze horretan, badaude zuzenean atea itxi digutenak, horietako bat Onkologikoa bera da. Erabiltzaile gisa, zuzenean eskatu genien prentsaurreko bat egitea Onkologikoan bertan gure burua ezagutzera emateko, eta ukatu egin ziguten. Kanpoan, kalean egin behar izan genuen. Esaten digute dibulgazio zientifikoa egiteko ez bada, ezin dela, eta hori ez da gure eremua, gure esparrua beste bat da. Harritzen gaituena da hau ez dela lehenengo aldia, guk beste talde baten kartelak ikusi genituen eta hortik hasi ginen.

E.G.: Esaten digute ez garela Onkologikoko parte zuzena. Noski. Baina hori da eskatzen duguna, hain zuzen ere. Hori da gure aldarrikapena.



Euskaraldi propioa egin dute Euskara Batzordeko nerabeek

Euskaraldian parte hartzeko gutxieneko adinik ez, eta eurena egin dute Lasarte-Oriako nerabeek. Hainbat jarduera eta egitasmo antolatu dituzte DBH 1-2-3 eta 4. mailako ikasleek. Gaur, hilak 2 egingo dituzte azkenak, hamabostaldiari amaiera emateko

Txintxarri

Oriarte institutuko ikasleek euren Euskaraldi propioa antolatu dute. Urriaren 21ean egin zuten lehen jarduera, Maratoialdiarekin bat eginez, eta gaurko ekimenarekin emango diote amaiera. Aparteko lanketa egin dute, Euskaraldi ofizialean aritzeko nahikoa adina ez dutelako, eta, hortaz, ezin izan dutelako bertan parte hartu. Ikasturtean zehar Euskara Batzordean aritzen diren nerabeek, Ttakun Kultur Elkarteak hezitzaileekin batera antolatu dute aipatu egitasmoa; Ele-meleka Bigarren hezkuntzako nerabeen hizkuntza sozializazioan laguntzeko proiektuaren baitan sortuak dira batzorde horiek. Guztira hogeiki kide ari dira lanean; DBH 1-2. mailako batzordean hamabi, eta 3. eta 4. mailan, berriz, zortzi.

Arestian aipatu moduan, Euskararen 10. Maratoialdia izan zen euren lanketaren abiapuntu. Hori hala izanik, bezperan, urriaren 21ean, DBH 1-2. mailako ikasleek lehiaketa

bat egin zuten, eta gisa horretako jarduerak izan ohi duten moduan, sari banaketa ere bai. Zaharrenek (DBH 3-4. mailakoek), berriz, ginkana bat antolatu zuten, eta jolasgaraian egin.

Horren ostean, azaroaren 18tik hilaren 2ra arteko ariketa sozialarekin bat eginez eta ikaskideak horretara erakarri asmoz, ahobizi eta belarripreden izen ematea egin zuten, institutuan. Jakinarazi dutenez, DBH 1-2. mailan, 144 Ahobizi eta 95 Belarripred bildu zituzten, eta DBH 3-4. mailan, aldiz, 140 eta 187, hurrenez hurren.

Kopuru horiek kontutan hartuta, eta gainerako herritarrek bezala soinean txapa janzteko gogoazutenez, horiek ere prestatu zituzten; banan-banan eskuz eta diseinuak elkarrekin adostuz. Jarduera horiekin batera, Euskaraldiak iraun bitartean, ikastetxeak bozgorailuetatik egunero egunero euskarazko kanta aireratzeaz ere arduratu dira DBH 1-2. mailako batzordekideak,

eta, 3 eta 4. mailakoek, jolasgaraia baliatu dituzte hori bera egiteko. Gazteenak herri kiroleetan ere aritu direla kontatu dute arduradunek, eta ezin ahaztu, pasa den asteko TXINTXARRI aldizkarian Maitane Eizmendi Nogales zortzikoteko kideari egin zioten elkarriketa; horiere lanketa horren parte izan da.

Amaiera jarduerak

Gaur, hilaren 2an amaituko da Euskararen 10. Maratoialdia, eta eguna aprobetxatuko dute ikasleek ere euren lanketari bukaera emateko. Horretarako, DBH 1-2. mailakoek euskal kantuen karaokea egingo dute, eta, 3. eta 4. mailakoek, berriz, *Mihiluze* telebista saioaren antzeko lehiaketa bat prestatu dute. Dena den, amaiera ekitaldi ofizialean ere parte hartuko dute Euskara Batzordeetako pare bat kidek: Libe Elvirak eta Maddi Lasak hain zuzen.



DBH 3-4. mailako kideak, euren Euskaraldia prestatzen. EUSKARA BATZORDEA



DBH 1-2. mailako kideak, Ttakunenean txapak prestatzen. EUSKARA BATZORDEA



TTAKUNALDIA

Ekin euskaraz!

Ttakun Kultur Elkartea,
euskara sustatzen
urte osoan zehar!




Zure B aukera

Kafetegia, gosari bereziekin

Hipodromo etorbidea, 15 behea
LASARTE-ORIA
676 54 30 22

KAFEAK | ZUKUAK | IRABIAKIAK | TXIGORTUAK |
GOZOAK | POKEAK | WRAPS-AK | TAKE AWAY



Euskararen Maratoialdiarekin bat!



EAGI

GIPUZKOAKO
ERAIKUNTZA ESKOLA
FP CONSTRUCCIÓN
GIPUZKOA

Goi maila eta erdi mailako zikloak

ERAIKUNTZA

LASARTE-ORIA

+INFO www.eagi.eus

943 569 222

EAGI ERAIKUNTZA ESKOLA EUSKARALDIArekin bat!



Eguzki Bodegas Ayesak ikasteko denboraldia du

Eguzki AFren gazteen mailako taldea ziklo berrian sartu da. Lehen urteko jokalariek osatzen dute ekipoa eta asko lehen aldiz ari dira areto futboleko jokatzen. Hala ere, ongi hasi dute liga Francisco Javier 'Kixki' Perez entrenatzaileak zuzentzen dituen gazteek

Txintxarri

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak norgehiagoka izan zuen azaroaren 26an. Erainen aurka lehiatu zen eta 12-0 gailendu zen. Alabaina, emaitzak ez zuen gustu ona utzi taldean. Francisco Javier Kixki Perez entrenatzaileak azaldu digunez, "Erain bost jokalarirekin aurkeztu eta bigarren zatian laurekin geratu zen. Hori dela eta, partida bertan behera utzi nahi izan zuen aurkariak baina epaileak amaitu egin behar zela agindu zuen".

Horrelako jarrerak kirolari mesede egiten ez dietela adierazi du Eguzkiko prestatzaileak: "Jokalaririk ez baduzu, saiatu neurketa atzeratzen. Zeren eta ez da atsegina horrela jokatzea. Ikusleei eta beste taldeei errespetu falta da".

Hasiera ona

Ligako jardunaldian gertatu zena alde batera utzita, Perez pozarren dago taldeak izan duen denboraldi



Eguzki Bodegas Ayesa taldeko jokalaria, erasoan. TXINTXARRI

hasierarekin: "Lehen urteko taldea dut. Jokalariak ongi ari dira lanean eta partida onak ere jokatu ditugu. Taularen erdi aldean gaude eta gehiago emateko gai garela uste dut. Alabaina, %100 ematea eragozten dizkiguten oztopoak izaten ari gara; lesioak, gaixotasunak, bestelako kontuak...".

Eguzkiko prestatzaileak adierazi duenez, udan Gazteen mailako

taldearen jarraipena airean zegoen: "Ziklo amaiera izan genuen aurreko denboraldian. Jokalari gehienak Eguzkiko senior taldeetara joan ziren. Beraz, uztailen bi gazterekin geratu nintzen bakarrik. Taldea osatzea lortu genuen eta lan txukuna egiten ari dira. Jokalari onak ditugu, baina zorte txarra".

Lehen hilabete hauek erronka handia izan direla nabarmendu

Gabonetako txapelketa, martxan

Eguzki Areto Futbol taldeak Gabonetako V. Areto Futbol Txapelketa antolatuko duela jakitera eman du. Hilaren 22tik urtarrilaren 7ra Michelingo kirol gunean zein Maialen Chourraut kiroldegiko pistan lehiaketako neurketak ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Eskolarteko adineko haurrei zuzendutako lehia da; hau da, benjamin, alebin eta infantil kategorietako haur eta gaztetxoek osatutako taldeek parte hartuko dute. Antolatzaileek baldintza batzuk ere jakitera eman dituzte. Hala nola, kategoria bakoitzeko zortzi taldek jokatuko dute gehienez. Ekipo bakoitzeko jokalaria kopurua ere mugatua egongo da; gutxienez zazpi eta gehienez hamar kide izango dituzte.

Inskripzio orriak Goxokis Goxua dendan jaso daitezke. Parte hartzeko 50 euro ordaindu behar ditu talde bakoitzak. Hilaren 16an itxiko dute izena emateko epea antolatzaileek.

Txapelketaren gaineko informazio gehiago nahi izanez gero, 699 42 02 39 (Gorka) zenbakian edo eguzkiaretofutbola@outlook.com helbide elektronikoan izango dute interesatuek eskuragarri.



Gabonetako txapelketa kiroldegian egingo dute berriro. TXINTXARRI

du Perezek; jokalariek kirolarekin lehen harremana izan dute: "Bi kadete ditut eta gainerakoek ez dute inoiz areto futboleko jokatzen. Batzuek futbolarekin harreman txikia izan dute".

Ondorioz, denboraldi honetan emaitzei baino, jokalarien ikasketa prozesuari emango dio garrantzia entrenatzaileak: "Teknikan trebatu, araudia eta

kirola ezagutu, espazioa menderatu... 40x20 metroko eremuan gauza asko gerta daitezke momentu batean eta hori kontrolpean izaten ikasi behar dute. Eskarmentu gehiago duten taldeen aurka ari dira. Nabari da. Hala ere, lan ona egiten ari dira. Beraz, denbora behar dugu taldeak bere onena emateko".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
OHOREZKO ERREGIONAL MAILA
Urola KE - Ostadar SKT Larunbata. 11:45. Argixao, Zumarragan.
GORENGOEN MAILA
Sanpedrotarra FE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Trintxer, Pasaian.
ERREGIONAL 1. MAILA
Urola KE B - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Argixao, Zumarragan.
INFANTIL 1. MAILA
Lazkao KE A - Ostadar SKT B Larunbata. 12:00. Arizti Handi, Lazkao.
ALEBINA, AURRETIKO FASEA
Billabona KFE - Ostadar SKT Igandea. 12:00. Arratzain, Villabonan.
ARETO-FUTBOLA
1. MAILA
Idiazabal BaiReformas - Eguzki Arkupe Rehabilitaciones Ostirala. 22:30. Zelaa kirol., Idiazabalen.
2. MAILA
Eguzki ISU Leihokak - Madamar Zarautz KE Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA
Antiguoko KE Bellmer - Eguzki Bodegas Ayesa Igandea. 12:45. Pio Baroja kirol., Donostian.
INFANTIL MAILA
Eguzki AF - Lauburu Ibarako Merkatarik Elkartea Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.
SASKIBALOIA
SENIOR 3. MAILA
Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT Larunbata. 18:00. Benta Berri kirol., Donostian.
JUNIOR ERRENDIMENDU ZILARRA
CD Internacional - Ostadar SKT Larunbata. 12:45. Mons kirol., Donostian.
KADETE ERRENDIMENDU ZILARRA
Ostadar SKT - Carrocerias Amute Hondarribia Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.
KADETE PARTAIDETZA
SaskiAxular Ulla - Ostadar SKT Igandea. 10:00. Benta Berri kirol., Donostian.
INFANTIL ERRENDIMENDU URREA
Latz taberna ISB - Ostadar SKT Larunbata. 09:30. Azkoitiako kiroldegian.

INFANTIL ERRENDIMENDU ZILARRA
Txogitxu Askatuak - Ostadar SKT Urdina Igandea. 10:00. Paco Yoldi kirol., Donostian.
INFANTIL PARTAIDETZA
Oiarso SKT 10 - Ostadar SKT Beltza Igandea. 09:45. Galtzaraborda kirol., Errenterian.
PILOTA
ESKUZ BANAKA, JUBENIL 2. MAILA
Intza (Urdanpilleta) - Oiarpe Igandea. 11:00. Michelin kirol guneko pilotalekua.
ESKUZ BANAKA, TRINKETA, JUBENILAK
Behar Zana - Intza 1 Larunbata. 10:30. (2. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
Hernani 1 - Intza 2 Larunbata. 10:30. (3. partida) Ametsa trinketa, Iruran.
ESKUZ BANAKA, ALEBINAK 1. MAILA
Intza (Huizi) - Hernani Larunbata. 15:00. Michelin kirol guneko pilotalekua.
Arrasate - Intza (Jauregi) Larunbata. 16:30. Uarkape pil., Arrasaten.
ESKUZ BANAKA, ALEBINAK 2. MAILA
Gazteleku - Intza (Iparragirre) Ostirala. 18:30. Arrate pilotalekua, Andoainen.

BOLEIBOLA
EUSKAL MAILA, SENIOR
Ostadar SKT - Navarmutilak Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.
JUBENILA
Ostadar SKT - Hernani KE 1 Igandea. 10:30. Maialen Chourraut kirol.
KADETEA
Ostadar SKT A - Salbatore Mitxelena Larunbata. 11:00. Maialen Chourraut kirol.
Ostadar SKT B - Aiztondo NKT 1 Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.
INFANTILA
Aiztondo Neskide - Ostadar SKT A Larunbata. 11:00. Emiobidea ik., Villabonan.
IGERIKETA
PACO SANCHEZ SARIA
Buruntzaldea IKTKo alebin eta benjamin mailako igerilariak Paco Sanchez Saria lehiatuko dute. Larunbata. 15:30. Usabal kirol, Tolosan.
CASTALIA SARIA
Buruntzaldea IKTKo Garazi Etxeberria eta Nahia Zudaire taldekideek "XIX Trofeo Internacional Castalia Castellón"

Sarian parte hartuko dute Gipuzkoako selekzioarekin Larunbata eta igandea. Castello, Valentziako Erkidegoan.
ERRUGBIA
14 ETA 13 URTEZ AZPIKOA
Beltzak RTko Eric Perezek eta Iker Carrillok Gipuzkoako selekzioa entrenamendu saioa dute. Larunbata. 10:00/11:30. Altamira, Ordizian.
12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA
Beltzak RTko eskolako gazteboek topaketa dute. Igandea. 10:30. Gamarra, Gasteizen.
JUDO
ESPAINIAKO TXAPELKETA
LOKEko Asier Sagastik senior mailako Espainiako txapelketa lehiatuko du. Larunbata. 09:00. Gallur kirol, Madril.
LASTERKETA
BIKOTE KROSA
Herriko korrikalariak Bikote mixtoen krosean lehiatuko dira. Igandea. 11:30. Zarautzen.

Marka pertsonal berriak Neguko Ligako hitzorduan

Buruntzaldea IKTko igerilariak ligako hirugarren saioari aurre egin diote, Andoainen. Hamabost marka pertsonal berri ondu dituzte kirolariak. Gipuzkoako Txapelketarako giltzak argitaratu berritan, igeriketa taldeko lau kide sailkatu dira dagoeneko lehiarako

Txintxarri

Neguko Ligako hirugarren jardunaldia burutu zuten Andoainen Buruntzaldea IKTko igerilariak. Infantil, junior zein absolutu mailako 11 kide izan ziren igerian eta gehienek euren markak ondu zituzten.

Igeriketa taldeko kideen gehiengoak 400 m. libre proba egin zuen. Taldeko prestatzaileek azaldu dutenez, infantilen kasuan, hitzordu garrantzitsua zen; Neguko Gipuzkoako zein Euskal Herriko txapelketetarako giltza lehiaketa, hain zuzen.

Horrez gain, lau estiloetako 200 metroko lehian, 100 m. libre eta bizkar estiloko 50 m. zein 200 m. saioetan ere lehiatu ziren Buruntzaldea IKTko ordezkariek.

Guztira, hamabost marka pertsonal hobetu zituzten (ikus ondoko koadroa).

Gutxienekoak, argitaratuta

Horrez gain, taldeko arduradunek jakitera eman dutenez, otsailean jokatu den Gipuzkoako Neguko Txapelketan parte hartzeko gutxienekoak argitaratu dira eta Buruntzaldea IKTko lau igerilariak dagoeneko sailkapena lortu dute. Irati Etxeberria, Mayi Gorostegui, Nora Miguelez eta Amañur Iparragirre izango dira oraingoz igeriketa taldeko ordezkariek.



Neguko Ligako hirugarren jardunaldian lehiatu diren Buruntzaldea IKTko kideak. BURUNTZALDEA IKT

Buruntzaldea IKTko igerilarien marka pertsonal berriak

- Laida Guerrero: 50 m. bular, 54,93 eta 100 m. libre, 01.41,71.
- Ane Meyer: 50 m. bizkar, 47,92.
- Irati Etxeberria: 400 m. libre, 05.38,37.
- Nora Miguelez: 400 m. libre, 06.25,12.
- Amañur Iparragirre: 400 m. libre, 06.03,02 eta 200 m. lau estiloak, 03.20,02.
- Iker Gorostegui: 400 m. libre, 04.28,93 eta 100 m. libre, 58,21.
- Mayi Gorostegui: 400 m. libre, 05.56,08 eta 100 m. libre, 01.17,65 eta 50 m. bizkar, 39,71.
- Garazi Etxeberria: 200 m. lau estiloak, 02.30,96.
- Miren Sarobe: 400 m. libre, 04.49,30 eta 200 m. bizkar, 02.42,08.

Buruntzaldea IKTko prestatzaileak pozarren daude igerilariak egindako lanaz: "Pixkanaka entrenamendu gogorrek emandako emaitzak ikusten ari

gara; eta lanean jarraituko dugu!". Era berean, Andoaingo saioan boluntario gisa laguntzen egon ziren klubeko kide guztiei eskerrak eman nahi dizkiete.

Futbol taldeek emaitza ezberdinak izan dituzte etxean

Michelin kirol gunean jokatu diren partidetatik, bitan garaile izan dira herriko taldeak eta hiru berdindu dituzte

Txintxarri

Ostadar SKT eta Texas Lasartearra futbol taldeetako askok atsedena izango dute hilaren 3an eta 4an. Aurreko jardunaldian, aldiz, guztiek jokatu zuten neurketa eta emaitza

ezberdinak izan zituzten. Etxean jokaturako bederatzi partidetatik, esate baterako, bi irabazi, hiru berdindu eta lau galdu zituzten.

Ostadarren erregional mailako hiru taldeek etxean jokatu zuten. Erregional ohorezkoak bana berdindu

du zuen Beti Gazteren aurka; erregional gorenak Orioko garaitu zuen 1-0 eta 1. erregionalak, aldiz, aurkako emaitza izan zuen Urnietarekin, 0-1.

I. jubenil mailako bi talde izan ziren Michelin kirol gunean lehiatzen. Ostadar Bk Amara Berri izan zuen aurkari eta 5-0 irabazi zuen. Texas Lasartearrak, aldiz, ezin izan zuen Orioko garaitu, 1-2.

Bana berdindu zuten kadete mailako C taldeak eta infantil F8ak. Eta 0-4 galdu zuten ohorezko infantil eta infantil A taldeak.



OSTADAR IPAR MARTXA

Zumaia eta inguruak ezagutzen

Ostadar Ipar Martxako kideek azaroko irteera egin zuten 26an, larunbatarekin. Ordukoan Zumaiaraino bidaiatu zuen taldeak eta bertan 14 kilometroko ibilbide zirkularrari aurre egin zioten Lasarte-Oriako ipar martxa ibiltariak. Eguraldia lagun, flyscharen eta itsasoaren ikuspegi ederrak izan zituzten Talaia bidean barrena.

Lasarteoriatarrek Donostiako Maratoian lehiatu dute

Lasarte-Oria Trail Mendi Elkartek Txindokira irteera antolatu du bazkide eta lagunentzat, hilaren 18an

Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariak hitzordu garrantzitsua izan zuten azaroaren 27an, Zurich Donostiako 44. Maratoia. Proba luzean zein 20 km. eta 10 km. lasterketetan izan ziren Lasarte-Oriako ordezkariek lehiatzen.

Denborei dagokionez, hona hemen marketako batzuk: Maratoian, Pablo Muñoz 02.55.50; David Garcia, 02.56.19; Peio Fadrique, 04.04.24 eta Cristaina Bernal, 04.09.43; Maratoi erdian, Asier Mendizabal, 01.43.50 eta 10 kilometroko proban, Jon Huici,

35.11; Julen Goenaga, 35.36 eta Itsaso Tolosa, 43.08.

Txindokira irteera

Bestalde, Lasarte-Oria Trail Mendi elkarteak hilaren 18an Txindokira mendira irteera antolatu du. Jarduera doakoa da bazkideentzat eta bazkide ez direnek 10 euro ordaindu behar dituzte.

Izen ematea www.lasarteoriatrail.com webgunean egin behar dute eta hilaren 15ean bukatuko da inskribatzeko epea. Informazio gehiago LOTMEren webgunean eskuratu daiteke.

LOKEko judokak lehen postuetan izan dira Amurrioko lehiari

Kadete eta infantil mailako Amurrio Hiribilduko 28. txapelketa jokatu zen azaroaren 26an, larunbatarekin. Galizia, Asturias, Kantabria, Aragoi, Madril eta Euskadiko 350 judoka bildu ziren lehiaketan eta Lasarte-Oria Kirol Elkartek (LOKE) ere ordezkaritza izan zuen. Unai Guisado, Tarieli Kevlisbivi *Tato*, Aitor Santos

eta Iker Izquierdok kadete mailan borrokatu zuten eta ederki jardun ziren guztiak.

Alabaina, lehen biak bakarrik izan ziren brontzezko domina eskuratzeko lehiari eta zorte ezberdina izan zuten euren borroketan. Guisadok 66 kilo azpiko kategorian saria eraman zuen; Tatok, aldiz, 72 kilo azpiko mailan bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

LOKEko prestatzaile Gorka Aristegi pozarren dago gazteek egindako lanarekin.

Ostadarrek ezin izan du Ordizia garaitu

Infantil Errendimendu Urrea-ko taldeak Ordizia 09ren aurkako partida gogorarekin hasi du bigarren itzulia. Kanpoko taldea nagusi izan da erasoan eta garaipeneko puntuak eskuratu ditu. Bestalde, saskibalo sailak Baskonia ikusteko irteera antolatu du

Txintxarri

Infantil Errendimendu Urrea mailako ligak bigarren itzulia hasi du. Ostadar SKTren taldeak Ordizia 09 izan zuen aurrez aurre eta ez zen partida erraza izan Nahia Carrilloren jokalarientzat: ordiziarrek 19-43 gailendu ziren.

Aurkaria indartsu hasi zen lehian eta aurki lortu zuen etxeko defentsa apurtzea. Pertsonaleko marran ireki zuten markagailua ordiziarrek eta lehen hamar minutuetan, bederatzia puntuko aldea eskuratu zuten, 4-13.

Etxeko taldeak ahaleginak egin arren, Ordiziaren defentsa apurtzeko ederki borrokatu behar izan zuen eta saskiaren azpian ere ez zuen zortetik izan.

Bigarren laurdenean, neurketak berdin jarraitu zuen eta ordiziarrek 5-10eko aldeko partzialarekin iritsi ziren atsedenaldira.

Hirugarren laurdenean, talde urdin-beltzak defentsa indartu zuen eta aurkariak ez zuen



Infantil mailako jokalaria, saskira sartzen. TXINTXARRI

hainbesteko minik egiterik izan erasoan. Tamalez, etxeko taldea ere ez zen fin ibili; 4-8koa izan zen partziala.

Azken laurdena gogoz hasi zuten ordiziarrek eta lehen bost minutuetan bederatzia puntu egin zituzten. Bederatzigarren minutuan hiruko batekin biribildu zuten emaitza.

Ostadarrek, aldiz, saski azpian ez zuen asmatzerik izan; pertsonal marratik hiru puntu egin eta

hiruko saskiratze batekin amaitu zuen neurketa.

Baskonia ikustera

Bestalde, Ostadar saskibalo ataleko kideek jakinarazi duenez, Baskoniaren neurketa ikusteko irteera berreskuratuko dute aurtun. Hilaren 29an, ostegunarekin, jokatu den Euroligako Baskonia-Real Madrid partidaz gozatuko dute izena ematen duten zaletuek.

Norgehiagoka ikusi nahi duten helduek 25 euro ordainduko dituzte; 14 urte azpikoek, aldiz, 20 euro. Prezioan sarrera eta autobusa daude barne.

Autobusa 17:00etan aterako da Michelin kirol gunetik eta itzulera 22:00ak aldera izango da. Izen ematea Ostadarreko bulegoan (Geltoki kalea 25) egin behar dute, astean zehar, 17:00etatik 19:00etara. Plaza mugatuak izango direla jakitera eman dute saskibalo ataleko kideek.

Etxeko taldearen hutsak ongi baliatu ditu Zaisa Txingudik

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeak 26-42 galdu du Michelin kirol gunean jokaturako neurketa

Txintxarri

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak RT eta Zaisa Txingudi RT taldeen arteko lehia izan zen azaroaren 27an, Michelin kirol gunean. Euskal Ligako Ohorezko B kategoriako neurketa borrokatuan bidasoatarrak izan ziren garaile, 26-42.

Gogotsu atera ziren bi taldeak zelaira. Beltzakeko kideak aurkariaren defentsa hausten saiatu ziren lehen minutuetan; Zaisa Txingudik ongi eutsi zion enbatari, ordea. Eta etxekoek erasoan utzitako hutsunez baliatuta markagailuan aurre hartu zuen aurkariak, entsegu eta gauzatze batekin.

Nahiz eta saiatu, beltzek ezin izan zuten bidasoatarren defentsa hautsi; Txingudik, aldiz, etxekoen ahulguneak erabiliz aldea handitzea lortu zuen; beste hiru alditan entsegu marrara iritsi eta entsegua gauzatzea, 0-28. Ahaleginak ahalegin, 34. minutuan lortu zuen Egoitz Esnaolaren taldeak saria, eta Jokin Beloki herritarrak makilen artetik igaro zuen baloia. 7-28 joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, indartsu atera zen etxeko taldea; entsegua eta Belokiren gauzatzearekin aldea murriztu zuen. Txingudik ez



Neurketako 'touch' baten irudia. TXINTXARRI

zuen partidaren kontrola galdu nahi eta bost minututara, entsegu marra zeharkatzea lortu zuen berriro, baita baloia makilen artean sartzea ere.

Hala ere, beltzek ez zuten amore eman eta gogor ekin zioten metroak irabaztera. Bi jokaldiri esker, besteak beste Belokiren gauzatzea eta Gabi Gavilan herritarraren entsegua, 26-35 hurbildu ziren etxekoak.

Bidasoatarrek beltzen berpiztea ikusita defentsa indartu eta erasoan intentsitatea igo zuten. Era horretara, neurketa amaitzear zela, etxekoen defentsa zein entsegu marra igaro zuten berriro. Gauzatzean ez zuten hutsik egin. Garaipenaren puntuak Bidasoa aldera joan ziren, beraz.

Hiriburuen inguruko ibilbideak, mendizaleen eskura

Txusma Perez Azaceta herritarrak 'Rutas montaÑeras desde las capitales' liburua argitaratu du


Txintxarri

Asteburuetan edo Eguberrietako oporretan mendira joateko hautua egiten duten herritarrek aukera paregabeak izango ditu gure inguruan. Ibilbide garbirik buruan ez duen pertsonak, besteak beste, liburu gidak izaten dituzte lagungarri. Horietako bat izan daiteke urrian Txusma Perez Azaceta herritarrak Sua argitaletxearekin argitaratu zuena, *Rutas montaÑeras desde las capitales*.

Mendizaleak ezohiko planak aurkeztzen ditu gida berri

horretan: IruÑea, Gasteiz, Donostia eta Bilbo hiriburuak abiapuntutzat hartuta, tontor, talaia eta balio handiko natur eremu eta daramatza mendizaleak.

Idazleak adierazi duenez, euskal herritar gehienak bizi diren hirigune horiek ere igoera eta txango ederrei ekiteko leku "egoki-egokiak" direla erakutsi nahi izan du liburuan: "IruÑea, Gasteiz, Donostia eta Bilbo mendiz inguratuta daude eta, gizakion presioak zeharo itxuraldatu baditu ere, bere balio



Txusma Perez Azaceta eta liburuaren portada. T. PEREZ AZACETA

natural gehienei eutsi diete eta horri esker aisialdi gune estimatuak bilakatu dira".

Era horretara, irakurleak hirietako bihotzetatik abiatuta mendi gailur ederretara (Pagasarri, Arrieta, Arratzain,

Ezkaba Txiki...), talaia ikusgarrietara (Igeldo, Artxanda, Olarizu, Oihana...), eta gure historiaren lekuko izan diren hainbat guneetara (Irulegiko gaztelua, Burdinazko Hesia, Eskibelgo dorrea, Txoritokitako

gotorlekua...) heltzeko 24 ibilbide aurkituko ditu gidan.

Horrez gain, Antxon Iturriza Aizpel mendizale donostiarraren artikulu bat ere dakar liburuxkak. Horretan, hiriburuek euskal mendizaletasunarekin izan duten harreman historikoa aztertzen du.

Erronkari eta Salazar bailarak

Alabaina ez da hau, Perez Azaceta herritarrak kaleratu duen liburu bakarra izan. Irailean, *Las mejores excursiones. Valles de Roncal y Salazar* gida ere argitaratu zuen fisikoki zein digitalki Ecos Travel books argitaletxearekin.

Besteak beste, Kakueta, Lakartxela edo Orhi mendietarako igoerak edo Iratiko basoan barruko ibilbidea daude ikusgai lan horretan.

ZORION AGURRAK




Pau
10 urte!! Zorionak eta muxu handi bat!




Xuhar
Zorionak pinpoyo!!! 11 urte dagoeneko! Oso ondo pasa zure egunean eta mila muxu txapelduna!!!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 2




Larunbata, 3




igandea, 4




Astelehena, 5




Asteartea, 6



Asteazkena, 7



Osteguna, 8



Jaio da!

Eman jaiotzen berri TXINTXARRI-n. Deitu 943-37 14 48 telefonora, bidali haurraren izen-abizenak eta jaiotze data txintxarri@ttakun.eus helbide elektronikora edo 688 68 35 10 WhatsApp zenbakira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 2	GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 3	DE MIGUEL
IGANDEA, 4	DE MIGUEL
ASTELEHENA, 5	DE ORUE
ASTEARTEA, 6	ACHA-ORBEA
AZTEAZKENA, 7	LASA
OSTEGUNA, 8	ACHA-ORBEA
OSTIRALA, 9	GIL
LARUNBATA, 10	LASA
IGANDEA, 11	LASA
ASTELEHENA, 12	URBISTONDO
ASTEARTEA, 13	GANDARIAS-URIBE
AZTEAZKENA, 14	DE ORUE
OSTEGUNA, 15	DE MIGUEL

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-09:00
M. Gomez Bravo: Kale Nagusia 14, Hernani. 943-55 48 92

'URTE OSOKO GUARDIAK' APLIKAZIOA eskuragarri App Store edo Android Marketen
Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:	LARRIALDIKO TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943-37 16 29	OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84	DYA: 943-46 46 22
KIROLDEGIA: 943-37 61 82	GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943-37 61 81	UDALTZAINAK: 943-36 24 42
GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79	ERTZAINZA: 943-53 88 40
KIUB: 943-36 16 05	SOS DEIAK: 112
UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21	
MUNTERI AEK: 607 62 52 33	

OHARRA

Udal Liburutegia itxia

Lasarte-Oriako Udal liburutegiak jakinarazten du hurrengo astean jai egunez gain (hilaren 6a eta 8a), hilaren 9an eta 10ean ere itxita egongo dela.

Kirol instalazioak abenduaren 6an eta 8an

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak jakinarazten du hilaren 6an eta 8an Maialen Chourraut kiroldegia irekita egongo dela eta jai egunetako ordutegian (09:00etatik 13:00etara) erabili ahalko dela. Michelin kirol guneari dagokionez, hilaren 6an 09:00etatik 13:00etara erabilgarri izango da eta 8an, aldiz, itxia egongo da.

Biyak Bat elkartearen loteria

Biyak Bat elkarteak bere bazkideei gogorarazten die abenduaren 1etik aurrera soberan dauden loteria txartelak salgai jarriko dituztela. Horiek eskuratzeko bulegora joan beharko da, astelehenetik ostiralera 10:30etik 12:30era.

Beltzak RTren Beltzak RTko saskiko txartelak salgai daude

Beltzak RTk jakinarazten du, urtero legez, produktuz betetako Gabonetako otarra zozkatuko duela.

Sari ugari batu ditu Beltzak RTk aurtengo Eguberrietako sarian, besteak beste, arrain eta haragi sorta bana, 1 kg. angula, ardo sorta bat, fisioterapia sesioak edo hainbat jatetxe edo tabernatan afariak.

Txartelak ohiko tabernatan daude eskuragarri. Abenduaren 21eko ONCEko azken lau zenbakiekin bat datorren txartela izango da irabazlea. Batzen den dirua Errugbi eskolara bideratuko du Beltzak RTk.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera.

Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobe. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

Eta txistua aspaldi alboratu zenuelakoan herdoilduta zaudela uste baduzu, zaude lasai. 19:00etan etor zintezke, eta gutxinaka-gutxinaka garai bateko soltura berriro hartu. Zatoz, primeran pasatuko duzu-eta!





‘IKASTALOA’

Abenduak 14, asteazkenean Ttakunenean.

Bi txanda izango ditugu: 17:00etatik-18:30era (familientzat) eta 18:30etik 20:00etara (helduentzat)

Izena emateko: kultura@ttakun.eus edo 695 78 53 89 telefonoan.



AZOKA TXIKIA

LANA
ESKAINITZA

Batxilergoko 1. mailako Ekonomia eta Matematika ikasgaietan laguntzeko pertsona baten bila gabiltza, ikasleei eskola partikularrak emateko. Harremanetarako zenbakia, 609 47 31 11.

Bi umeei klaseak emateko neska edo mutil bat behar dugu. Bat LH3 kurtsoan dago eta bestea DBH3.n. Utzi mezua whatsapppean zure datuekin, adina, ikasketak, orduko prezioa... Whatsapp zenbakia: 688 74 09 31.

15 urteko neska bati euskara klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Harremanetarako zenbakia, 631 57 15 40 (Arratsaldez deitu).

ESKARIA

Lan bila nabil interna edo orduka. Adineko pertsonak zaindu edota garbiketa lanak egingo

nituzke. Paperak behar bezala ditut eta eskarmentua. Harremanetarako zenbakia: 648 90 67 82.

Kurtsoan zehar haurrak arratsalde zaintzeko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia, 695 18 41 79.

Adineko pertsonak zaintzeko prest nago. Esperientzia dut eta baita paperak ere. Harremanetarako zenbakia: 627 20 61 10.

Umeak zainduko nituzke. Harremanetarako zenbakia: 695 18 41 79. Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

SALEROSKETA

SALDU
Su egurra saltzen da (haritza), tximinirako,

ekonomikarako... Harremanetarako zenbakiak: 667 23 23 00 eta 616 83 09 02.

BESTELAKOAK

HEZKUNTZA

Unibertsitateko ikaslea errefortzu klaseak emateko zein haurrak zaintzeko prest dagoena, goizez nahiz arratsalde z. Harremanetarako zenbakia, 688 65 56 93.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646 82 44 66

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: 80 €
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90 €

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:

Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Endika Merchan, Gorka Morales,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/93

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Emanaldia

ZK Zehar Kablea kolektiboarekin elkarlanean, *Belarri bero* websailaren proiektzioa antolatu du aSUnak talde feministak. Emanaldiaren ostean, sortzaileekin hitz egiteko aukera izango dute ikus-entzuleek. Gaztelekua, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Jaia

Euskararen 10. Maratoialdiari amaiera emateko jaia ospatuko dute. Emanaldia eta gero, luntx bat egingo dute Ttakunenea elkartean. Kultur etxea, 19:00etan.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Euskararen Eguna

Euskararen Eguna girotzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak eta Ttakun Kultur Elkartek jarduera pare bat antolatu dituzte:

11:00etan, luntxa, Ttakunenean.

11:30ean, kantu jira. Erdigunean barrena ibiliko dira Xumela korua, Oaintxe in deu txaranga eta trikitilariak. Ttakunenea elkartea, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Jaialdia

Jalgune Elkartek jaialdia ospatuko du; herritarrek *Very Important People* izatera gonbidatu ditu. Jakinarazi du ikus-entzuleek gonbidapenak eskuratu beharko dituztela kultur etxeko leihatilan. Kultur etxea, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Iker Pirris, Freddy Pelaez eta George Otamendi musikariak organo



LASARTE-ORIA Jaialdia. Jalgune Elkartek jaialdia ospatuko du bihar, hilak 3, Aniztasun Funtzionala duten Pertsonen Egunean. *Very Important People* izatera gonbidatu ditu herritarrek. Horretarako, gonbidapenak eskuratu beharko dituzte ikus-entzuleek, kultur etxeko leihatilan. Ohi bezala, kolore eta sorpresaz betetako emanaldia izango da.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioa, 18:00etan.

emanaldia egingo dute Avenida taberna jatetxean.

Avenida taberna jatetxea, 19:30ean.

IGANDEA 4

LASARTE-ORIA Zinema

Nire zirkua filma proiektatuko dute, haurrentzat. Sarrerek 4 euro balio dute; kultur etxeko leihatilan eros daitezke. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

El cuarto pasajero filma proiektatuko

dute, helduentzat. Sarrerek 6 euro balio dute.

Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 7

LASARTE-ORIA Aurkezpena

Lasarte-Oriako Presoen Aldeko Batzordeak *Azkenak!* fanzinea aurkeztuko du, herriko zenbait sortzaileekin batera ondu duen lana. Ekitaldira bertaratzeko direnak aukera izango dute aleak erosteko. Agora taberna, 19:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

'Nire zirkua'

Igandea 4

17:00.

'El cuarto pasajero'

Igandea 4

19:30.

USURBIL

URBIL

'A todo tren 2: ahora son ellas'

Ostirala 2

15:45, 16:45,

18:00, 19:00,

20:20, 21:15,

22:35.

Larunbata 3

15:45, 16:45,

18:00, 19:00,

20:20, 21:15,

22:35.

Igandea 4

15:45, 16:45,

18:00, 19:00,

20:20, 21:15,

22:35.

'Black Panther: Wakanda forever'

Ostirala 2

15:55, 18:10,

21:45.

Larunbata 3

15:55, 18:10,

21:45.

Igandea 4

15:55, 18:10,

21:45.

'El cuarto pasajero'

Ostirala 2

17:05, 19:25,

22:25.

Larunbata 3

17:05, 19:25,

22:25.

Igandea 4

17:05, 19:25,

22:25.

'Strange world'

Ostirala 2

16:00, 16:50,

18:35.

Larunbata 3

16:00, 16:50,

18:35.

Igandea 4

16:00, 16:50,

18:35.

'Violent Night'

Ostirala 2

16:55, 19:40,

22:25.

Larunbata 3

16:55, 19:40,

22:25.

Igandea 4

16:55, 19:40,

22:25.

'Venus'

Ostirala 2

19:30, 22:00.

Larunbata 3

19:30, 22:00.

Igandea 4

19:30, 22:00.

'The Menu'

Ostirala 2

19:35, 22:15.

Larunbata 3

19:35, 22:15.

Igandea 4

19:35, 22:15.

'The woman king'

Ostirala 2

21:55.

Larunbata 3

21:55.

Igandea 4

21:55.

ASTEAZKENA 14

LASARTE-ORIA Ipuin kontaketa

Kontu Kantoi-ko lagunek 3 eta 5 urte arteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egingo dute. Sarrera, doan.

Udal Liburutegia, 17:30ean.

LASARTE-ORIA Tailerra

Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak taloak egiten ikasteko bi saio antolatu dituzte.

Ttakunenea elkartea, 17:00etatik 18:30era edo 18:30etik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Opera

Victoria operaren emanaldi digitala proiektatuko dute udalak eta Danok Kide elkartek, elkarlanean. Sarrerek 7,5 eta 9 euro artean balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

OSTIRALA 16

LASARTE-ORIA Zinema

Mi pais imaginario filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerek 6 euro balio dute. Kultur etxea, 22:00etan.

LARUNBATA 17

LASARTE-ORIA Antzerkia

Zuhaitzak landatzen zituen gizona antzezlanaren emanaldia egingo du Gorakada Teatroak. Sarrerek 4 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Eguberrietako kontzertua emango du Alboka Abesbatzak, Luberri Abesbatzarekin batera. Sarrera, doan. San Pedro parrokia, 20:00etan.

Lasarte-Oriako San Tomas azokan postua jarri nahi duzu?

baserritarrek eta artisauak ere aukera izango dute

Jar zaitez gurekin harremanetan (abenduaren 16a baino lehen)

943-37 14 48 - 695 78 53 89 kultura@ttakun.eus



VIII Aterpea Pintxo Bidea

Abenduaren 2tik 4ra

Lasarte - Oria 2022

Pintxo Aterpea
2,50€

Ostirala 19:00etatik 21:00etara
Larunbata eguerdian eta 19:00etatik 21:00etara
Igande eguerdian

Parte hartu!

500€ zozketatuko ditugu
erosketa-bonoetan

500€



CAFÉ BAR BUENETXEA
Bakailaoa pil-pil erara
pistoaren gainean



HERRIKO ETXEA
Odolki eta sagar bilkaria
bere hondar gainean



BAR LASARTE
Masail erregosia onddo
eta mertxikarekin



BAR ALAI
Olagarro eta otarrain frijitu
broxeta, curry eta koko aparra,
piperrautsa eta platano chips-ekin



ARKUPE TABERNA
Fish and Chips kimch
maionesarekin



ARAETA SAGARDOTEGIA
Olagarroa txingarretan patata
puskatuaren gainean, barazki
ozpin oliotan, Pedro Ximenez
erredukzioarekin eta oliba beltz
hondar eta perrexilarekin



EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra

AMAIERA EKITALDIA

LASARTE-ORIA

Data: 2022-12-02

Ordua: 19:00-20:00

Lekua: Manuel Lekuona Kultur Etxean

- Ikuskizuna zortzikotearekin
- Euskararen Maratoialdiko laburpen bideoa
- Luntxa

EUSKARAREN EGUNA

lasarte-oria

ABENDUAREN 3AN

11:00: LUNTXA TTAKUNENEAN
11:30: XUMELAREKIN KANTU JIRA +
DAINTXE IN DEU TXARANGA +
TRIKITILARIAK

*Jarrai
dezagun
euskaraz!*

EUSKARAK 365 EGUN

